



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2018ko IRAILAREN 6an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2018ko irailaren 6an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.45 orduetan, Aneli Urbieta Etxeberria Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
Felix Joaquin Asensio Robles
Angel Serrano Martinez
Aritz Sarria Saraqueta
Cristian Ivo Sebastian Pizarro Jofre
Ander Leon Nanclares

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de la siguiente acta Plenaria:**
 - **2018ko uztailaren 26an egindako ohiko bilkura./ Sesión ordinaria de fecha 26 de julio de 2018.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. Larraulgo kaskoan Euskaltel-eko telekomunikazio sarea moldatzeko obra baimena eskaera, Euskaltel/ Solicitud de licencia de obra para conexión de telecomunicaciones en Larraul, Euskaltel.**
- 4. Donostiako Lan Arloko 2 zk. Epaitegiaren 20.05.4-18/002077 ebazpenaren berri ematea eta bertan agintzen duena betetzeko Aiztondo Mankomunitateari ekarpena burutzeta, hala bada./Dación de cuenta de la sentencia 20.05.4-18/002077 y en consecuencia la aportación a Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatea.**
- 5. Eudel-ek eginiko gomendioaren onespina, 2018ko ekitaldirako langileen ordaindasariei buruzkoa, hala bada/ Aprobación de la recomendación realizada por Eudel, en relación a los incrementos retributivos del ejercicio 2018.**
- 6. Larraulgo Udalarentzat hirigintza eta arkitekturari buruzko aholkularitza zerbitzuen esleipena, hala bada./Adjudicación del servicio de urbanismo y arquitectura al Ayuntamiento de Larraul.**
- 7. 2017-2018 ikasturterako Larraulgo herritarrei euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzen ebazpena, hala badagokio./ Aprobación de las**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ayudas económicas a los habitantes de Larraul por cursos de euskara, curso escolar 2017/2018.

8. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.
9. Beste batzuk/Otros.
10. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.

- ▣ 2018 urteko uztailaren 26ean Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

17/2018 Alkatetza Ebazpena, uztailaren 27koa, non D.C.D.S. jaunari San Esteban eta San Bartolome jaietan "jostailuak eta gozokiak saltzeko" postu bat jartzeko baimena ematea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA

LARRAULGO KASKOAN EUSKALTEL-eko TELEKOMUNIKAZIO SAREA MOLDATZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, EUSKALTEL

Ikusirik C.A.S. jaunak, Euskaltel S.A. ren izenean eginiko eskaera, non Larraulgo kaskoan Euskaltelen telekomunikazio zerbitzua garatzeko beharrezkoak diren lanen obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik, Udal Aholkulari teknikoak, 2018ko abuztuaren 27an eginiko txostenean dioena:

LARRAULGO KASKOAN EUSKALTEL-EKO TELEKOMUNIKAZIO SAREA MOLDATZEKO OBRA BAIMENAREN ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA

C.A.S. jaunak "Euskaltel S.A"-ren izenean, Larraulgo kaskoan Euskaltelen telekomunikazio zerbitzua garatzeko beharrezkoak diren lanen obra lizentzia eskatzen du. Honetarako, ZTE MSSE telekomunikazioko enpresak egindako proiektua aurkezten du. Hau aztertirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Dokumentazioa honetan, Larraulgo kaskoan Euskaltelen telekomunikazio zerbitzua garatzeko beharrezkoak diren lanen ezaugarriak deskribatzen dituen memoria, aurrekontua eta planoak azaltzen dira.

Obra zibilaren aurrekontua 10.103,27 €-koa da.

Larraulgo Arau subsidiarioen B dokumentuaren 9º puntuak esaten duenez, zerbitzu hau, oinarritzko zerbitzua da, erabilera globala duten leku guzietan baimenduta geratzen delarik.

Telekomunikazio zerbitzu hau, interes orokorrekotzat har daiteke Larraulgo biztanleentzat, LAAek esaten duten moduan, telekomunikazioen garapenak landa-zonak inbertsiorako eta enplegua sortzeko duten erakargarritasuna areagotzea ahalbidetu dezakeelako.

Beraz, eta ikuspuntu urbanistiko aldetik jarduera lizentzia emateko arazorik ez dagoela ikusirik, udal arauetara egokitzen dela informatzen dut.

*Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.

*Obra hondakinak, baimendutako zabortegei batera eraman beharko dira eta lanak amaitzean, eraispen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean

*Lan hauek egiteko urratzen diren espaloiak eta galtzadak, lanak bukatzean aurreko egoerara moldatu beharko dira. Jarduera bitartean sor daitezkeen kalteez erantzuteko, berme fidantza bat utziko da udaletxean.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA: C.A.S. jaunak, Euskaltel S.A.-ren izenean eginiko obra baimena eskaera onestu, hau da, Larraulgo kaskoan Euskaltel-eko telekomunikazio sarea moldatzeko obra baimena ematea, betiere, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean jasotzen dituen baldintzak betetzen baditu.

BIGARRENA: C.A.S. jaunari jakinaraztea Lan hauek sor daitezkeen kalteez erantzuteko, 1.000 eurotako berme fidantza bat utzi beharko duela udaletxean.

HIRUGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapenaren ordezkurteroz Udalerrian fakturaziotik eratorritako sarrera gordinen %2a ordaindu beharko dio Larraulgo Udalarari.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LAUGARREN PUNTUA

**DONOSTIAKO LAN ARLOKO 2 zk. EPAITEGIAREN 20.05.4-18/002077
EBAZPENAREN BERRI EMATEA ETA BERTAN AGINTZEN DUENA
BETETZEKO AIZTONDO MANKOMUNITATEARI EKARPENA BURUTZEA,
HALA BADA**

Ikusirik Donostiako Lan arloko 2 zk. Epaitegiaren 20.05.4-18/002077 ebazpena non ondorengo dioen:

“.../...”

ANTECEDENTES DE HECHO

PRIMERO: El presente proceso sobre despido ha sido promovido por M.I.G.L. figurando como parte demandada AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA.

Se ha señalado para la celebración de los actos de conciliación y juicio el día 05/10/2018, a las 10:30.

SEGUNDO: Con anterioridad a la fecha señalada para la celebración de los actos de conciliación y juicio, han comparecido ante esta Oficina judicial todas las partes y han alcanzado el siguiente acuerdo:

La Mancomunidad reconoce la improcedencia del despido, con fecha de efectos de 16 de julio de 2018 y ofrece el abono de una indemnización por importe de 51.922,97€ que serán ingresados en la cuenta corriente de la actora antes del día 15 de septiembre del presente año.

La parte actora muestra su conformidad.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

ÚNICO: Dispone el artículo 82 de la Ley de la Jurisdicción Social (LJS), en su apartado tercero, que las partes podrán formalizar conciliación en evitación del juicio, por medio de comparecencia ante la oficina judicial, sin esperar al día señalado para los actos de conciliación y juicio. De alcanzarse acuerdo en dicha comparecencia, corresponde al Letrado de la Administración de Justicia su aprobación, debiendo decretar el archivo de las actuaciones, siempre que lo acordado no sea constitutivo de lesión grave para alguna de las partes o para terceros, de fraude de ley o de abuso de derecho o contrario al interés público.

En este caso, no concurre ninguna de las circunstancias que impiden la aprobación de la avenencia por el Letrado de la Administración de Justicia.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

PARTE DISPOSITIVA

Se aprueba la avenencia alcanzada por las parte sen el acto de conciliación celebrado ante el Letrado de la Administración de Justicia que suscribe.

Se deja sin efecto el señalamiento de la fecha para la celebración de los actos de conciliación y juicio.

.../...

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Donostiako Lan arloko 2 zk. Epaitegiaren 20.05.4-18/002077 ebazpenaren berri jasotzen da, bertan jasota dagoenarekin bat eginik.

BIGARRENA: Donostiako Lan arloko 2 zk. Epaitegiaren 20.05.4-18/002077 ebazpena jasota dagoena betetzeko, Aiztondo Mankomunitateari 12.980,75 eurotako ekarpena burutzea 2018ko irailaren 15a baino lehen.

HIRUGARRENA: 12.980,75 eurotako gastua onestea eta bere ordainketa 2018ko udal aurrekontuetako 130.332.10.02 partidaren kargura egin dadin agintzea.

BOSTGARREN PUNTUA

EUDELEK EGINIKO GOMENDIOAREN ONESPENA, 2018KO EKITALDIRAKO LANGILEEN ORDAINSARIEI BURUZKOA, HALA BADA

Ikusirik Eudel-ek eginiko gomendioa, non ondorengoa dioen:

“ LANGILEEN ORDAINSARIEI BURUZKO GOMENDIOA 2018KO EKITALDIRAKO

2018-07-04an **Estatuaren 2018ko Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legea** argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean; arau horrek aukera ematen du neurriak hartu, eta gure administrazio publikoko langileen ordainsaria igotzeko.

Artikuluak hitzez hitz esaten duena ikusita eta egin daitezkeen interpretazioak argitzeko, EUDELEk egokitzen jo du **GOMENDIO** hau egitea EAEko udalei:

- **Aipatutako 18.Bi artikulua lehen paragrafoari dagokionez, 2018-01-01etik aurrera, langileen ordainsariak legeak baimentzen duen gehiena igotzea, hau da, %1,5, 2017ko abenduaren 31n indarrean zudenekin alderatuta.**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- Bestetik, 18.Bi artikuluaren bigarren eta hirugarren paragrafoei dagokionez, %0,25eko soldata-igoera gehigarria jartzea, 2018-07-01etik aurrera eragina izan dezan, administrazio publikoko enplegatuei ordaintzeko, igoera onesten duen Ministroen Kontseiluak -halakorik bada- akordioa jakinarazi bezain azkar (2018ko uztailaren 13an jakinarazia).
- Aurreko 18.Bi artikuluaren laugarren paragrafoari dagokionez, udal-autonomiari kalterik egin gabe, 2017ko ekitaldiko* aurrekontuan superabita duten EAeko udalerriei gomendatzen diegu soldata-masaren %0,3ko igoera gehigarria baimen dezaten, dituzten finantza- eta aurrekontu-aukeren arabera. Zenbateko hori langileen artean banatuko da, 18.2 artikulua

GOMENDIO honen bidez, EUDELeK lege-agindu horren irismena argitu nahi du, eta, aldi berean, jasota utzi nahi du legearen barruan interpelatzeko interesa duela, administrazio publikoko langileentzat onuragarrien den eran, betiere, instituzioak eraginkorragoak izan daitezten eta lan-inguruneak kalitate handiagoa izan dezan, horrela, etorkizunean errazagoa izango delakoan UDALHITZ akordio arautzaile berria lortzeko negoziazio kolektiboaren esparruan aurrera egitea.

UDALHITZ 2008-2010 Akordioa ezarritako baldintzetan betetzearen garrantzia berresten du EUDELeK, lortutako akordioak errealitatean betetzea baita haien bermerik onena. Horrez gain, zilegitasuna erakutsi egiten du, akordio sektorial berri bat lortzeko.

**"Aurrekontuko superabita" terminoari dagokionez, gure esparruan Aurrekontuko egonkortasun eta finantza-iraunkortasunerako apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak 11. artikuluan xedatutako eran ulertuko da, lege horrek arautzen baitu aurrekontuko egonkortasunerako printzipioaren instrumentazioa; hori gorabehera, eskumena duten erakundeek kontzeptu hori kalkulatzeko egokiak diren azalpenak eta/edo jarraibideak eman ahal izango dituzte.*

Gaia azterturik, Udalbatza honek aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- 2018 ekitaldirako, langileen ordainsariei buruzko EUDEL-ek egindako gomendioaren 1. Eta 2.go puntuak bere osotasunean onestea eta aplikatzea. Ondorengoak izanik:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- Aipatutako 18.Bi artikulua lehen paragrafoari dagokionez, 2018-01-01etik aurrera, langileen ordainsariak legeak baimentzen duen gehiena igotzea, hau da, %1,5, 2017ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuta.
- Bestetik, 18.Bi artikulua bigarren eta hirugarren paragrafoei dagokionez, %0,25eko soldata-igoera gehigarria jartzea, 2018-07-01etik aurrera eragina izan dezan, administrazio publikoko enplegatuei ordaintzeko, igoera onesten duen Ministroen Kontseiluak -halakorik bada- akordioa jakinarazi bezain azkar (2018ko uztailearen 13an jakinarazia).

BIGARRENA: 2018 ekitaldirako, langileen ordainsariei buruzko EUDEL-ek egindako gomendioaren 3. Puntua mahai gainean uztea, gaia hobeto argitu arte.

SEIGARREN PUNTUA

LARRAULGO UDALARENTZAT HIRIGINTZA ETA ARKITEKTURARI BURUZKO AHOHKULARITZA ZERBITZUEN ESLEIPENA, HALA BADA

Ikusirik Larraulgo Udalarentzat hirigintza eta arkitekturari buruzko aholkularitza zerbitzua, Larraulgo Udalean eskaintzen hasi zela 2015 urtean, astean bi ordu Udaletxean dagokion zerbitzua eskainiaz.

Ikusirik, orain arte Udal Aholkulari Teknikoa den Eba Erkizia Brion arkitektoari aurrekontu bat eskatu zaiola, aipaturiko zerbitzua prestatzeko.

Ikusirik Eba Erkizi Brion arkitektoak aipaturiko aurrekontua aurkeztu duela, ondorengo diolarik:

“LARRAULGO URDALARENTZAT HIRIGINTZA ETA ARKITEKTURARI BURUZKO AHOHKULARITZA ZERBITZUEN LAN PROPOSAMENA

Proposamen honen helburua, Larraulgo Udalarentzat hirigintza eta arkitekturari buruzko aholkularitza gidatuko dituzten irizpideak zehaztea izango da.

1.-GARATU BEHARREKO LANAK

Egin beharreko lanak hurrengoak izango dira:

- *Herritarren hirigintza kontsulterei arreta zerbitzua.*
- *Obren kontrola.*
- *Obra txikien baimenari buruzko espedienteen txostenak.*
- *Obra handien baimenari buruzko espedienteen txostenak.*
- *Sailkatutako jardueren baimenari buruzko txostenak.*
- *Jarduera salbuetsien baimenari buruzko txostenak.*



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- *Planeamendu tresneri buruzko hirigintza txostenak.*
- *Gestio tresneri buruzko hirigintza txostenak.*
- *Hirigintza diziplinako txostenak.*
- *Segregazioei buruzko txostenak.*
- *Hirigintza balorazioak.*
- *Alkateak, udal bazkideek edo udal idazkaritzak eskatutako beste edozein motatako txosten edo azterketak egitea.*

Lan hauetaz gain, eta udalak eskaturik hirigintza aholkularitzarekin loturiko lan eta informazio bileretara joango da, bai udaletxean bertan edota kanpo administrazioetan, ala nola Diputazioan, Eusko Jaurlaritzan...

Era berean eta kasua balitz, obra eta hirigintzako udal batzordeetara joango da, udal bazkidek beraien erabaki hartzeetan aholkua emateko.

2.-LANTOKIA

Herritarrentzat aholkularitza zerbitzuak eta bestelako hirigintza lanak, astero bi orduz udaletxean egingo dira.

Denbora honetatik kanpo egin ezin diren txosten edo aholkularitza lanak, sinatzen duen arkitekto honen bulegoan egingo dira, eta gehienez, beraien eskaeratik bi aste barruan entregatuko dira.

Bilerei dagozkien beste lanak, udaletxean bertan edo dagokion administrazioan burutuko dira.

3.-ORDAINSARIA

Udaletxean hilero aholkularitza lanetik jasotako ordainsaria 545,13€ (BEZ-a gabe) izango da.

Ordu hauetatik kanpo gertatzen diren lanen ordainsaria, egindako lanordu kopuruetan eta joan-etorrietan erabilitako denboran neurtuko da, hilero 54,51€/orduko fakturatuz, ondoren dagokion BEZ-a gehituz.

Hurrengo urteei dagokienez, kopuru hau “ kontsumo prezioen indiziea”-aren arabera gehituko da.”

Ikusirik aipaturiko kontratua, kontratu txiki bat dela ez delako 15.000 eurotako gastua gaintitzen.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez, ondorengo,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA: Eba Erkizi Brion Arkitektoari, Larraulgo Udalarentzat hirigintza eta arkitekturari buruzko aholkularitza zerbitzuaren kontratua esleitzea, urtebetez, 2018ko irailean hasiko delarik bere zerbitzua prestatzen eta 2019ko abuztuaren 31an bukatuko



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

delarik. Astean bi orduz, Larraulgo Udaletxean bere zerbitzua eskainiko duelarik, hilean 545,13 eurotako diru-kopuruaren truke. Aipaturiko ordutegi horretarik aparte, Udalak eskatutako lanak egiteagatik fakturatuko duen ordainsaria 54,51€ordukoa izango da.

BIGARRENA: Eba Erkizia Brion Arkitektoari jakinaraztea, Larraulgo Udaletxera bertaratu beharko duela dagokion kontratua sinatzera.

HIRUGARRENA: Aneli Urbietta Alkate-Lehendakari andrea ahalmenu aipaturiko kontratua sina dezan.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

2017-2018 IKASTURTERAKO LARRAULGO HERRITARREI EUSKARA IKASTAROAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZAREN EBAZPENA, HALA BADAGOKIO

Ikusirik Larraulgo Udalak 2018ko uztailaren 5ean ospatutako ohiko Udalbatzarrean 2017-2018 ikasturterako Larraulgo biztanleentzat euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak onartu zituela.

Ikusirik K.V.D.W. andreak C1 nibela gainditu zuela abenduan, beraz, jarritako baldintzak bete ditu Larraulgo Udalak kudeatzen dituen diru-laguntza jasotzeko.

Ikusirik P.P. andreak bete duela asistentziaren baldintza baina ez duela diru-laguntza eskaera egin.

Ikusirik J.G. jaunak diru-laguntza eskaera egin duela baina asistentziaren baldintza ez duela bete.

Ikusirik Euskara ikastaroa egin duten gainontzeko herritarrek ez dutela diru-laguntza eskaerarik egin eta asistentziaren baldintza ez dutela bete.

Gaia aztertutik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- 2017-2018 ikasturterako Larraulgo herritarrei Euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak onestea, K.V.D.W.. andreari dagokionez, diru-laguntza Ikasturtearen matrikula kostuaren %100 izango delarik.

BIGARRENA.-P.P. andreari jakinaraztea, 2017/2018 ikasturterako Larraulgo herritarrei Euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntza ukatzea, eskaera ez duelako bete.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

HIRUGARRENA: J.G. jaunari jakinaraztea, 2017/2018 ikasturterako Larraulgo herritarrei Euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntza ukatzea, asistentziaren baldintza ez duelako bete.

LAUGARRENA: I.A., A.B., I.B., J.G., P.H., L.P. eta I.U. jaun/andreei jakinaraztea, 2017/2018 ikasturterako Larraulgo herritarrei Euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntza ukatzea, diru-laguntza eskaera ez dutelako egin eta asistentziaren baldintza ez dutelako bete.

BOSTGARRENA.- J.G., P.P., I.A., A.B., I.B., J.G., P.H., L.P. eta I.U. jaun/andreei jakinaraztea, 2017/2018 ikasturterako Larraulgo Udalak aurreratutako matrikulazio kostua, Larraulgo Udalari ordaintzea, jakinarazpen hau jaso ondoren hilabeteko epean, ondorengoak izanik kopuruak:

IZEN ABIZENAK	MATRIKULA KOSTUA
I.A.	189,00€
A.B.	189,00€
I.B.	189,00€
J.G.	454,00€
P.H.	94,50€
I.U.	189,00€
L.P.	189,00€
P.P.	189,00€

SEIGARRENA.- 2018 urteko udal aurrekontuan kreditu nahikoa aurreikustea

ZAZPIGARRENA.- Erabaki honen berri interesatuei ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

FERRETERIA BRICOWORK	670,00
IZFE	44,71
ZU ETA BIOK	170,78
GILBE	25,44
KIROLZER	46,70
TOLOMENDI	155,55
SETALDE	6,06



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

UR AGENTZIA	26,70
KEY-LAN	42,10
CORREOS	10,60
KIROLZER	46,70
GOIZ	51,62
EBA ERKIZIA	903,77
BABESA SUZAI	156,65
TOLOMENDI	155,55
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	764,60
SETALDE	92,26
NORTEGAS	8,31
NORTEGAS	48,84
NORTEGAS	25,98
IBERDROLA	70,07
IBERDROLA	130,70
IBERDROLA	139,26
IBERDROLA	29,22
IBERDROLA	170,72
IBERDROLA	71,24
IBERDROLA	102,23
IBERDROLA	28,12
IBERDROLA	180,05
IBERDROLA	155,13
MOVISTAR	25,40
MOVISTAR	182,11
MOVISTAR	6,05
MOVISTAR	178,19
MOVISTAR	175,91
MOVISTAR	25,40
MOVISTAR	-24,16
MOVISTAR	204,17
MOVISTAR	0,73

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **5.303,46** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

BEDERATZIGARREM PUNTUA
BESTE BATZUK



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ez dira aurkezten.

HAMARGARREN PUNTUA
ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.20 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA